

2023an, 65 establezimendu ireki dira

EROSKI SUPERMERTATU FRANKIZIATUEK %10 BAINO GEHIAGO IGO DITUZTE SALMENTAK

- **14 milioi euro baino gehiago inbertitu ditu 2023an, eta 360 lanpostu sorrarazi**
- **Aurreko urteetako frankizien irekiera erritmoari eutsi dio. Gauzak horrela, 307 inaugurazio baino gehiago egin ditu joan deneko bost urtean, eta urtea 628 supermerkatu frankiziatu baino gehiagorekin bukatu du**
- **2023ko frankizia hartzaileen %52k jada badute beste denda bat EROSKIrekin erregimen horretan**
- **EROSKIk 2023an urteko Frankiziatzailerik Onenaren saria jaso zuen Elikgaien kategorian, Espainiako Frankiziatzaileen Elkartearen emanik, eta Frankiziarik Onenaren saria jaso du Supermerkatu Frankizien kategorian 2023-2024ko Urteko Merkataritza sarietan**

Elorrio, 2024ko otsailaren 21a.- [EROSKI](#)ren frankizia erako supermerkatuen sarean %10,6 igo dira salmentak 2023an. Guztira 14 milioi euroko inbertsioa eginda, EROSKIk 65 frankizia inauguratu ditu 2023an, eta, horrekin, 360 lanpostu sorrarazi ditu.

Hedapen horren bitartez eta denda propioen sarea eraldatuz, bultzada indartsua hartu du EROSKIren Zurekin eredu komertzialak, belaunaldi berriko dendak ezaugarritzen dituenak. Autonomia erkidego hauetan egin ditu kooperatibak irekiera gehienak: Katalunia (27), Andaluzia (10), Balearrak (5) eta EAE, Gaztela eta Leon eta Gaztela-Mantxa (4). Horien atzetik doaz Aragoi (3) eta Extremadura, Galizia, Valentzia eta Madril (2).

EROSKIk aurreko urteetako frankizien irekiera erritmoari eutsi dio. Gauzak horrela, 307 inaugurazio baino gehiago egin ditu joan deneko bost urtean, eta urtea 628 supermerkatu frankiziatu baino gehiagorekin bukatu du. Hala, jarraitzen du frankizien sarea hedatzen, fokua lurralde hauetan ipinia duelarik datozen urteetarako: Katalunia, EAE, Andaluzia, Madril, Gaztela-Mantxa, Extremadura eta Levante. 2024ko ekitaldian, EROSKIren asmoa da 57 frankizia inauguratzea.

"Pozik gaude EROSKIren frankizia sareak izan duen eboluzioarekin. Helbururik garrantzitsuenak bete ditugu bai salmenten hazkundearen aldetik, bai errentagarritasun aldetik eta bai denda berrien irekiera kopuruaren aldetik. Gauzak horrela, baikorrak gara aurtengo urteari begira, eta jarraitu behar dugu apustu egiten frankiziei lagun egitearen alde", azpimarratu du EROSKIko Frankizien zuzendariak, Alberto Cañasek.

Formatu komertzialak

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko
zuzendaria

PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

EROSKIren frankiziak Zurekin eredu komertzialekoak dira, eta EROSKIren denda propioen ezaugarri, aurreramendu eta abantaila guztiak dituzte: tokiko eta eskualdeko produktuen aldeko apustua, elikadura osasungarriaren sustapena, bezeroen aurrezpenean laguntzea eta gizarte erantzukizunarekin eta iraunkortasunarekin daukaten konpromisoa elkartasun ekimenean eta ingurumen inpaktua gutxitzearen bitartez.

Supermerkatuen gaur egungo sareak formatu komertzial desberdinak ditu; besteak beste, nabarmentzekoak dira EROSKI City izenekoak, 250-400 metro koadro dituzten hurbileko supermerkatuak, elikagai eta freskoen sorta zabala dutenak. Formaturik berritzaileena *Rapid* erako saltokia da, ultra hurbileko eta komenentziako formatu bat, 150 metro koadrokoa, edozein kokapenetara egokitzen dena –hiriak, gasolindegia, unibertsitatea, zona turistikoak, hondartza...–, non posible baita erosketak eroso, laster eta oso bat egitea.

Frankizia hartzaileen konfiantza

EROSKIk irrimo egiten du merkatuari gaur egun lehenesten den frankizia eredu bat ematearen alde. *"Kooperatiba oinarria duen enpresa gara, langileena eta kontsumitzaileena, eta geure-geureak diren balioak ditugu. Horregatik, ulertu egiten ditugu gure frankiziatuen beharrak. Azken gogobetetze inkestaren arabera, 2023. urtean egindakoa bera, %96,49k balorazio positiboa egiten digute"*, nabarmen du EROSKIren Frankizia arloko zuzendariak.

2023ko frankizia hartzaileen %52k jada badute beste denda bat EROSKIrekin erregimen horretan. *"Are gehiago, gaur egun, gure frankizia sarearen %46 denda bat baino gehiago dituztenenak dira. Horrek erakusten du enpresariak sendotasuna eta konfiantza dutela gure frankizia ereduari. Eredu honetan, 45 urtetik gorako eskarmentua dugu, eta etengabe joan gara optimizatzen; gainera, gaur egun kokapen askotarako egokituta dago, hala nola hiriguneak, gasolindegia eta unibertsitateak. Gure frankizia hartzaileek gure dendetan inbertitzen jarraitu izanak erakusten du pozik direla ereduarekin, eta negozioaren arrakastarekin"*, azpimarratu du Alberto Cañasek.

Frankiziarik onenaren aitortza

EROSKIk 2023an Frankiziatzaile Onenaren Saria jaso zuen elikaduraren kategorian, Frankiziatzaileen Espainiako Elkarteak emanik. Sari horrek balioan jartzen du frankizia hartzaileek jasotzen duten babesa eta aholkularitza. EROSKIk frankiziei ematen dien balio

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko
zuzendaria
PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA. G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

bereizle horiek sarearen bidez eta marketin plan sendo batez lortu ditu, baita, azken buruan, frankizia sarearen kudeaketa bikainari esker ere.

Horretaz gainera, Frankiziarik Onenaren saria jaso zuen Supermerkatu Frankizien kategorian 2023-2024ko Urteko Merkataritza sarietan. Kontsumitzaileen sariketa hori Espainiako handiena da, eta *retail*-aren sektoreko merkatu azterketarik handienetako bat. Kontsumitzaileek hautatzen dituzte sarituak.

Lankidetzaren hitzarmenak

Kooperatibak lehengo lankidetzaren hitzarmenari eusten dio Enpresaburu Gazteen Elkartearen Espainiako Konfederazioarekin (CEAJE), enpresari gazteen eta autonomoen ekintzailetza lagundu eta sustatzeko. Ekintzailetzarekin duen konpromisoa indartu ez ezik, EROSKIk autonomia erkidegoetako ekonomia garatzen lagundu nahi du.

EROSKIk jarraitu egiten du desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu eredua hedatzen; 2015ean ekin zion bide horri. Gaur egun, jada horrelako bederatzi denda ditu, eta horietatik lau GUREAK taldearekin batera, Euskal Herrian, bi Gaztela eta Leonen SOLTRArekin batera eta beste hiru Katalunian AMPANSen eskutik. Iaz bi denda ireki ziren Vegalsan SOLTRArekin eta Caprabon AMPANSekin.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko
zuzendaria
PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA. G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)